

**140/2021 PROZEDURA LABURTUKO
KAUTELAZKO NEURRIEN 36/2021 PIEZA.**

EZ DA KAUTELAZKO NEURRIK HARTZEN.

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegian, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri zen (140/2021 Prozedura Laburtua) honako erabakiaren aurka: Deialdia, 2021eko otsailaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, zeinaren bidez guztira 63 administrari plaza C1 eskaintzen baitira, 2017., 2018. eta 2020. urteetarako enplegu publikoaren eskaintzei dagozkienak.

Gainera, errekurtsogileek honako kautelazko neurri hau hartzeko eskatu zuten: "Errekurtsogileek betetako plazak auzi honen xede den deialditik kanpo uztea, bai eta hori eragin duten LEPetatik ere".

Donostiako Udalak idazki bat aurkeztu zuen kautelazko neurria ez emateko eskatuz.

Horiek horrela, hautaketa-prozesuko interesdun guztiei jakinarazten zaie Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegiak **114/2021 Autoa** eman duela 2021eko maiatzaren 10ean. Auto horren arabera, "**Interes publiko nagusi argia dago, kautela-neurria hartzea eragozten duena**", eta, beraz, ebazten da "**ez dela bidezkoa errekurtsogileak eskatutako kautelazko neurria hartzea**".

**PIEZA DE MEDIDAS CAUTELARES 36/2021 DEL
PROCEDIMIENTO ABREVIADO N.º 140/2021.**

**NO HA LUGAR A LA ADOPCIÓN DE MEDIDAS
CAUTELARES.**

Ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de San Sebastián, se interpuso recurso contencioso-administrativo (Procedimiento Abreviado 140/2021), contra la convocatoria publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 10 de febrero de 2021, por la que se ofertan un total de 63 plazas de Administrativo C1, correspondientes con las ofertas de empleo público para los años 2017, 2018 y 2020.

Además, la parte recurrente solicitó la adopción de la siguiente medida cautelar: "la exclusión de las plazas servidas por los recurrentes de la convocatoria que es objeto del presente pleito; así como de las OPEs de que trae causa".

El Ayuntamiento de San Sebastián presentó escrito solicitando que no se concediese la medida cautelar.

Ante estos hechos, se comunica a toda persona interesada en el proceso selectivo que, con fecha 10 de mayo de 2021, el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de San Sebastián ha emitido el **Auto 114/2021** en el que entiende que "**existe un claro interés público preponderante que imposibilita la adopción de la medida cautelar**" por lo que resuelve que "**No ha lugar a la adopción de la medida cautelar solicitada por la parte recurrente**".

PERTSONAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

M. Isabel Íñiguez Azurmendi